

- Azkoitiko Alkatea
- RSBAP/EAEko Zuzendaria eta adixkideok
- Pedro de Yrizar zenaren etxeakoak/familiares de Pedro de Yrizar
- Euskaltzainok
- Jaun/andreok

Egun on guztioi.

Pozgarria da Euskaltzaindiarentzat gaur zuekin biltzea, Intsausti Jauregian, jakituria eta ezagumenduaren etxe dotore honetan.

Are pozgarriagoa da, bestalde, batera ikusten ditugulako bertan Pedro de Yrizar euskaltzale sutsu zen figuraren inguruan eta hura omentzeko asmoarekin bilduta, berak biziki estimatu zituen erakundeak, hau da, Euskaltzaindia eta RSBAP/EAE, Azkoitiko udalaren babespean eta Intsausti Jauregian.

Euskaltzain ohorezko genuen Pedro de Yrizar eta langile porrokatua, euskal dialektologiaren alorrean egundoko lana egin zuena, euskal aditza ikertu eta gizarteratu nahian. Garai horiek ez ziren errazak izan. Hala ere, hamabost liburuki ditugu esandakoaren lekuko, beste argitalpen ugari batzuekin batera.

Egun, eta teknologia berrien bidez, Euskaltzaindiak bere wegbunean eskaintzen ditu material hauek, gure erakundeak, Yrizar familiarekin batera, hala ikusten duelako haren oinordetza intelektuala, alegia, beti berrikusten eta eguneratzen den zerbaiten gisa.

Ez da lehenengo aldia Pedro de Yrizar-en inguruan batzen garenik. Ondo gogoan dut haren *Memorias de un vascólogo* oroitzapen liburu zoragarriaren aurkezpena eta bera gure artetik joan ondoren, azken liburuaren aurkezpena, bere *Morfología del Verbo Auxiliar Vasco* aurkibidea zuena.

Luze eta sendo lan egin zuen Pedro de Yrizar-ek. Maisu lana egin zuela ezin ukatu. Honek ahalbidetu ditu besteak beste, gero Adolfo Arejita eta Amaia Jauregizar-ek erakutsiko diguten beste euskal dialektologiaren lana, hain zuzen ere, Euskaltzaindiak bideratzen duen *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a.

Unas palabras en castellano para la familia de Pedro de Yrizar. Una participación de Euskaltzaindia en este homenaje al maestro que fue Pedro, con la convicción de que no será el último. Su trabajo y su ejemplo lo merecen.

Por eso está aquí hoy Euskaltzaindia, junto con las instituciones que estimaron e impulsaron la labor de Pedro de Yrizar, labor, que digámoslo claramente, es una labor de hacer País, en la mejor tradición de la RSPAP/EAE y las instituciones aquí presentes.

Un último recuerdo para Hendrike Knörr, amigo del alma de Pedro de Yrizar, que hoy hubiese estado muy a gusto con nosotros en este acto y un recuerdo también del espíritu de entonces y de ahora, de ese hacer País, en boca de otra insigne azkoitiarra, Bizenta Mogel, que en una de sus fábulas nos dijo que si la mano puede mucho, el intelecto aún mas. *Asko dezake eskuak, gehiago, hala ere, buruak.*

Eskerrik asko, muchas gracias,

Azkoitian, 2010eko irailaren 29an

Andres Urrutia, Euskaltzainburua.